


### Teklatu berezia

**B**ileretan edo hitzaldietan esaten dena entzun eta guztia makinaz transkribatzea da mekanografiaren aritzen diren idazkariaren ametsa. Hala ere, gaur egun testuak makinatzen dituztenak lana azkar eginda ere 300-400 karaktere minutuko abiaduran ibiltzen dira gehienez. Horixe da, gutxi gora-behera, zuk artikulu honen hasieratik honaino irakurri duzun kopurua. Abiadura hori bizkortzearen, "Velotype" izeneko teklatu berria asmatu da; ohizkoarekin konparatuz gero oso bestelakoa.

Teklatu berri hau edozein ordenadorek (bai PC ordenadoreak eta bai Macintosh ordenadoreak) duen ohizkoaren ordez oso erraz instalatzen da. Teklatu zaharra deskonektatu eta leku berean berria konektatu besterik ez da egin behar.

Teklatu berriaren funtzionamendu-oinarria

Teklatu berri honen bidez minutuan mila karaktereraino idatz daitezke, funtzionamendua ikasi eta trebatu ondoren, noski.



sinplea da. Arazoa aldiko letra bat (karaktere bat) idatzi ordez, silaba osoa idaztea da. Pianistak nota bakarra jo ordez aldi berean nota-sorta jota akordea ateratzen du pianoan eta teklatu berri honetan akordeak silaba osoak direla pentsa dezakegu. Silabaren barruan "Velotype" teklatuak berak ipintzen ditu karaktereak ordena egokian, bere informatika integratuari esker. Beraz, hitzak silabatan bereizten dira, eta ez karakteretara. Beraz, idazleak silabakoa pentsatu behar du, testuak letra-multzoka aurrera egin dezan.

Teklatua simetrikoa da formaz, eta tekla hiru multzotan banatuak ditu. Erdiko ardatzean kalak daude, ezkerrean silabako hasierako kontsonanteak eta eskuinean bukaerako kontsonanteak. Aldi berean ezkerreko, erdiko eta eskuineko tekla bana jotzen direnean, "Velotype" teklatuak badaki zein silaba eskatu zaion. Sistema berri hau Hollandako hizkuntzalari eta injineruz osatutako talde batek prestatu du eta hizkuntza bakoitzean funtziona dezan moldatu beharra dago. Hizkuntza nagusietarako prestatu dute oraingoz (frantseserako due-  
la gutxi moldatu dute).

Estenotipia edo takigrafia baino askoz ere fidagarriagoa da, metodo honetan hainbeste ortografi akats izaten ez delako. Teklatu berrira ohitzeko idazleak gutxienez bost eguneko prestakuntza behar izaten du, eta ondoren mila karaktere minutuko abiadura lor daiteke. Bestela esan, artikulu hau bi minututan idatz daiteke.

### Aparatu balioaniza

**A**paratu txikia da eta "Gaieo 2000" du izena. Telefonoa, faxa, fotokopiagailua eta erantzungailu automatikoa da aldi berean. Edozein bulego edo etxetan jartzeko da aproposa eta funtzionamendu aldetik baditu berezitasunak.

Orain arte telefono-linea telefono-deia ala faxa jasotzeko erabili da. Izan ere faxa jasotzeko funtzio hori teklaren bidez "aukeratu" egin behar izaten da. Beraz, linea telefonorako aukeraturata badago faxik ezin da jaso, eta alderantziz, faxerako aukeraturata badago ez dago telefono-deirik jasotzerik. Horregatik, leku askotan bi linea (bakoitzak bere zenbakia duelarik) ipini dituzte; telefono-deietarako bata eta faxerako bestea.

Frantziako Telecom enpresak asmatu duen



Telefonoa, faxa, fotokopiagailua eta erantzungailu automatikoa da aldi berean.

"Gaieo 2000" aparatuak ordea, linea bakarren bidez konponetzen du arazoa. Izan ere, aparatuak igarri egiten dio deia telefonoz hitz egitekoa den ala faxa den, eta automatikoki aukeraten du funtzio egokia.

Tamainaz txikia da (98 x 260 x 240 mm) eta oso arina (2,3 kilo); beraz, edozein tokitara eramateko aproposa. Bere ahalmena ordea, handia da. Hamar zenbakiko memoria du, soinua ozenagotzeko aukera, hitz egitean eskuak libre edukitzeko prestatua dago, etab. Faxa ere badu eta hamazortzi segundo ingurutan bidaltzen du. Best orriko kargagailua eta 30 metro luzeko paper termikozko erroilua ditu eta fotokopiagailu gisa ere funtzionatzen du. Horrez gain "Gaieo 2000" aparatuak erantzungailu numeriko automatikoa du eta urrutitik telefonoz kontsulta daitezke erantzungailuko mezuak. Deia erantzungailurako ala faxerako den ere, automatikoki bereizten du aparatuak. 90.000 pezeta edo 4.000 libera inguru balio du.